

## La Herradura.

La Herradura, ferra, toponimoa zalantzarik gabe itsasertz honen morfologiatik eratorria da, edo agian zerbait magikoagoa izan daiteke, Granada galdu osteko ihesaldian zalditeria musulmanak utzitako arrastoa.

Arrasto hau Alboran itsasoaren ertzean idatzia da, itsaso erdi-itxi honetara ur atlantiarraren sarbidean. Afrika eta Europa arteko sartaldeko arro mediterranean hurbilena da. Hurbiltasun honek herri ugariaren inbasioei eman die bide, honen adibide dira kostaldea zedarrizatzen duten zelata dorre desberdinak, esaterako *La Mona* lurmuturrekoak eta *Gordo Castillo* muinokoa.

Kostalde labartsuak, higatu eta malkartsuak, malda handidun hondartzekin. Hondo harkaiztsu eta hareatsuak, itsasertzeko espezieen habitat, hareatako itsas izarrak, Thalossomak, muxarrak, bogak edo itsas luzoker batean pausaturiko blenido hori hau bezalako arrain bentonikoak

Ur masen nahasketak Alborango itsasoa oso dinamiko bihurtzen du eta bertan ekoizpen biologikoa oso altua da. Plankton ugarietasunak iragazleen agerpenari bide ematen dio, adibidez koral bigunak, hilen eskua deitzen dena bezala. Egia esan, haren itxura ez dator bat izen desatsegin honekin. *Dendrophyllia* bezalako beste koral gogor batzuek, kasu honetan isolatutako kolonietan, esekiduran aurkitzen diren elikagaiak elkarbanatzen dituzte.

Gardentasun ahulak, neurri handi batean plankton partikulen interferentziaz sortua, espezie erreofilo eta iragazleen presentzia ahalbideratzen du. Itsas hondo sakon eta ilunak dira, korrante ugariarekin. Iragazleen domeinuak jarraitzen du, kolore askotariko belakien presentziarekin. Inguruaren kromatismo eta argitasunari egokitzapen bat dira.

Substratu segidak hondo detritikoetara garamatza, bigunak, harrizko trinkotasuna duten elementuez osaturik egon arren. Hemen ere, ugaria da fauna: brio zooak, zeriatoak, harkaitzetako itsas izarrak, gorgoniak, kasu honetan kolore horikoak, eta itsasertzeko arrainak, *Thalossoma* generokoak, esaterako.

Alborango itsasoa itsaso zakarra da eta ondorioz historikoak izan dira hondoratzekak. Hemen ikus ditzakegu baten hondakinak, amarratua zegoenean eusten zuten soka lodiekin oraindik. Orain beste xede batzuetarako balio dute, muskuilu dentsitate izugarri bati ostatu emateko, esaterako. Ondoan ostra hazkuntzarako otarrak aurkitzen dira, itsasontziaren sareen artean.

Hainbeste iragazlek harrapari haragijaleak erakartzen dituzte, harkaitzetako izarrak eta olagarroak bezala, hondoratutako kroskoan janari bila.

Koral laranjadun horma bertikalen ondoan opistobrankio txikia aurkitzen dugu eta karramarro ermitaua, bere anemona komensalekin. Astiro mugitzen dira elikatzeko.

Itsas azpian ere badira zaldiak, baina ferrarik gabe. Haien mugimendu fin eta dotoreek zaldi andaluzen dantzaren antza daukate. Hemen, beraien bazka *Cymodocea nodosa* belazeko hostoak kolonizatzen dituzten epifitoak dira.

Ale sendoagoko beste hondo bigun batzuk, harrien azpian pilatzen diren ofiuren habitat dira.

Ondoren, harea finagoa, lurperatu eta bibalbioz elikatzen diren hareako itsas izar handien lurraldea da.

Hemen ere badira aztarnak, baina ez Herradura uhartearen forma bezain iraunkorrak. Izarraren eta arraia honen siluetak paisaia hareatsu honetan marrazki iragankorrak dira.

Azkenik, marmoka handi hau ikus dezakegu, *Rhizostoma pulmo*, bere izen zientifikoak bere tentakuluak biriketako albeoloen antza izateari egiten dio erreferentzia. Badirudi bere igerialdiak ez duela aztarnarik uzten. Irudi faltsua, izaki bizidun guztiok uzten dugu biosferan aztarna ekologiko bat.